

12. Buletina

Irailak 2013

LAN OSASUN BULETINA

AURKIBIDEA:

- 1. EUSKO JAURLARITZAK LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO FUNDAZIO LABORALEKO FUNTSAK ESKATU DITU**
- 2. MUTUALITATEETAKO PREBENTZIO ZERBITZUEN PRIBATIZAZIOA; BESTE ATZERAPAUZO BAT**
- 3. EUSKALDUNA ONTZIOLAN LAN GAIXOTASUNAREN ONARPENA**
- 4. OSALAN ETA UDAKO IKASTAROAK**
- 5. CEOE-RI PREBENTZIOA ZAILA IRUDITZEN ZAIO**
- 6. LAN ISTRIPU MORTALEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, IRAILAK 2013**

12. Buletina

Irailak 2013

1. EUSKO JAURLARITZAK LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO FUNDAZIO LABORALEKO FUNTSAK ESKATU DITU

EAJK POSIZIO POLITIKOA ALDATUTA, EREDU ESTATALARI MEN EGITEN DIO

Joan den irailak 5ean, Osalanen ohiz kanpoko Kontseilua bildu zen, eta erabaki zuen (Jaurlaritzaren, CCOOen, UGTren eta Confebasken aldeko botoekin) EAE aurkeztea estatu mailako Laneko Arriskuaren Prebentziorako Fundazio Laboralaren funtsak banatzeko deialdira.

Deialdi hori urtero egiten da Laneko Istripuen eta Gaixotasun Profesionalen Mutualitateen soberakinetatik datozen funtsekin, besteak beste, "prebentzioko zeharkako lurralde-ekintzak" egiteko.

ELAk eta LABek gai honetan posizio politiko berari eutsi izan diogu: funts horiek EAEn esku jarri behar dituzte zuzenean. Baliabide horiek EAEnko mutualitateen soberakinekin ere osatzen dira, eta horrenbestez kotizazio sozialen zati bat dira, eta hauei buruzko eskumena geure esku dago.

EAJko aurreko gobernuak posizio politiko honekin bat zetozen, eta estatuko fundazio laboralaren deialdietara aurkezteko aukera baztertu egiten zuten. Haatik, PSEren Jaurlaritzak irizpide hori aldatu egin zuen, eta EAE beste edozein autonomia-erkidegoren pare jarri zuen.

Beste arrazoi batzurekin batera, erabaki politiko horren ondorioz ELAk eta LABek Osalango Kontseilu Nagusiko parte hartzea eten egin genuen 2010eko uztailean, Jaurlaritzak bere eskumenei uko egiten zuela ulertu baitzuten, eta horrek lan-osasuneko eredu propioa garantzarakoan atzerakada handia zekarrela.

Irailaren 5eko erabaki honekin Urkulluren gobernuak gai honekiko posizio historikoa aldatu du. Argudiatuz axola duena dirua iristea dela, bere posizio politikoa baztertu eta eredu estatala onetsi egiten du. Madrilen "leihatila" bihurtzen gaitu.

Diru publiko hori onartzeak atea irekitzen dio funtsak banatzeko eredu jakin bati, eta horri esker Confebask, CCOO eta UGT finantziatuko dira. Hiruren artean 725.414 euro banatuko dituzte. Aurreko hiru urteetan (2010, 2011 eta 2012) 2,740,102 euro banatu dituzte jadanik eragile hauek: CCOO eta UGTk 684,991 euro bakoitzak eta Confebaskek 1,370,119 euro.

Teorian diru hori prebentzioa zabaldu eta berari buruz aholkularitza eta sentsibilizatzeko kanpainetara bideratu behar da, baina praktikan eragile horiek finantzatzeko bide estruktural bilakatu da, duela hainbat urte Nafarroan gertatzen den moduan. Funts horien jarraipen eta kontrol serioerik ez da egiten.

Jaurlaritza honek baztertu egiten du eredu propioaren alde egiteko aukera, baita lan-osasunaren gaian ere, hainbesteko garrantzia izanagatik; lan-harremanen eta gizarte-babesaren euskal esparruan beste atzerapauso bat izan da, beraz. Goitik behera porrot egin duen lan-osasuneko eredu espainiarra ontzat ematen da, lehentasuna prebentzio laboralari baino gizarte-eragileen finantziarioari ematen dion arren.

Izaskun Urien Osalango Zuzendariak zera erantzun digu: Osalango teknikari eta profesionalen lana auzitan jartzen ari garela. Harago doa, gure kritika profesional hauentzat iraingarria dela dio, "kaxkarra" botatzearen adinakoa.

Hau da hau maila! Oinarrian dagoen arazoari buruz hitzik ez, ez omen dago inolako atzera egite politikorik. Hori bai, Gobernu honen tentsio politikorik eza estaltzeko ELA eta LABen prentsa oharrean aipatzen ez diren gaiak erabiltzera heltzen da!

2.MUTUALITATEETAKO PREBENTZIO ZERBITZUEN PRIBATIZAZIOA; BESTE ATZERAPAUZO BAT

Jakina da enpresek egiten dituzten murrizketek eragin zuzena dutela prebentzian. Sarritan derrigorrez arriskuen ebaluaketa eta prebentzio plana egin zuten enpesez ez dute moldatu, salaketa edo presio sindikala izan bada salbu. Ebaluaketa espezifikoa ez dira egiten, osasunaren zaomtza zalantzan jartzen eta, eta are okerragoa dena, Administrazioak berak prebentzioa enpresentzako karga moduan ikusten du.

Espainiar araudiak prebentzio sistemaren garapena egiteko oinarritzat Prebentzio Zerbitzuak hartu zituen, batik bat kanpoko Zerbitzu Prebentzioak. Sektore honen estrategia, alabaina, eskaintza merkatzea da; bezero kopuruari eustea, baina aintzat hartu gabe prebentzioa zenbateraino den eragingarria, ezta prebentzio zerbitzuen araudia bera ere.

Horren ondorioz sektorearen egoera zeharo okertzen ari da. Zerbitzu asko dagoeneko ez dago martxan, eta prebentzioko teknikariek ratio altuekin lan egin behar dute, beren gaitasun profesionalaren kalterako.

Horrenbestez, Administrazioa Prebentzio Sozietateak pribatizatzeko arau bat ari da bultzatzen; sozietate hauek 2006 bereizi ziren Laneko Istripue eta Gaixotasun Profesionalakoko Mutualitateetatik.

Urratsez urrats, prebentzio sistemaren egitura eta gertakari profesionalen ingurukoa aldatzen ari dira, enpresen eta lobby-en interesen mesedetan. Izan ere, ASPREM (Laneko Istripuetako Mutualitateen Prebentzio Sozietateen Elkarte) CEOeko kide baita.

- Batetik, administrazioek enpresetan gertatzen ari den prebentzio politiketikiko utzikeria jarrera onberaz hartzen dute, eta araudia aldatzen ari dira egoera hau finkatzeko. Esaterako, Prebentzio Zerbitzuei buruzko LPRLko 30. artikulua aldaketa: hasieran enpresak berak har zezakeen bere gain prebentzioa, baldin eta 6 langiletik behera bazituen; 2009an kopuru hori 10 langileraino gehitu zen. Orain, litekeena da parlamentuan aztertzen ari den ekintzaileen legeak plantilla muga hori gehitzea, 25 langile izateraino.
- Bitartean, hainbat arauen bidez, Mutualitate Patronalei kontrol eta ahalmen handiagoa ematen diete gertakari profesionalen aitorpenari (hauek, hain zuzen, gehienez prebentzio gabeziaren ondorio dira) eta haurdunaldiko arriskuari dagokienez. Gainera, ezin da ahaztu mutualitateek eginkizun erabakigarria izango dutela gertakari komunen kontrolean, hots, osasun-sistema publikoaren pribatizazioa areagotu nahi dute.
- Prebentzio Zerbitzuen pribatizazioa, etekinik handiena lortzea beste irizpiderik ez duten enpresa eta erakunde onerako, segida honetako beste kasu bat da. Kontutan izan behar da berez kotizazio sozialak direla Mutualitateen menpeko prebentzio zerbitzu hauen sorrerarako oinarria; 2006an bereizi egin ziren, eta orain pribatizatzen ari dira. Horrela zirkulu bat ixten da. Osasungintza pribatuko "lobby" handiak horren esperoan zeuden.

3. EUSKALDUNA ONTZIOLAN LAN GAIXOTASUNAREN ONARPENA:

Gizarte Segurantzak, ELAko afiliatua eta Euskalduna Ontziolan lan egiten zuen langile bati Erabateko Ezintasun Iraunkorra onartu dio amiantoarekin erlazonaturiko gaixotasun bat pairatzeagatik. E.P.V, gaur egun erretiratu dago baina 1957. urtetik erretiroa hartu arte motoreen ajuste eta berme lanetan aritu zen ontziolan.

Bere lan ibilbide osoan amianto zuntzekin kontaktua etengabea izan zela adierazi du langileak eta laneko bertoko lagun askok ere amaintoarekin zerikusia duten gaitzak pairatu dituztela ziurtatzen du. Horregatik, amiantoa jatorrian duten gaixotasuenegatik kaltetutako guztiei dei egiten die sindikatura joan daitezen egoera salatzen.

4. OSALAN ETA UDAKO IKASTAROAK:

Aurreko urteetan bezela, Osalanek E.H.Uak antolaturiko ikastaroetan parte hartu zuen ekainak 18 eta 19an, Donostiako Miramon jauregian.

Lehenengo jardunaldian “lan gaixotasunen komunikazio sistemaren” gaia jorratu zen. Bertan lurralde ezberdinetako zenbait teknikarik lan gaixotasun baten susmoa jasotzean jarraitu beharreko bide edo protokoloen azalpena eman zuten.

Bigarren egunean, berriz, “gaitz muskulu-eskeletikoak” izan ziren jorratutako gaia. Langileon artean gaitzik arruntena izateagatik, hauen ebaluazio eta prebentzio neurriak aztertu ziren.

Jardunaldi biak, Osalanen eta enpresa publiko zein pribatuen esperientziekin osatu ziren: Arcelor Mittal, Fremap Prebentzio Zerbitzua, Osakidetza, Mutualia Prebentzio Zerbitzua, Lantegi Batuak, Gamesa, GES, Mercedes Benz, Ulma, Athlon... gehienak lan arriskuen prebentzioan egindako jarduerengatik “goraipatuak eta nahiko ezagunak”.

Aipatutako enpresa ezberdinen jakitun guzti horiek entzutea atsegina izan zen. Izan ere, lan gaixotasunen susmoaren komunikazio sistemaren inguruan, “guzti-guztiek lan gaixotasun susmoa Osalani komunikatzerako orduan zegozkien protokoloak momentuan jarraitzen zituzten”, besteak beste. Hori horrela izanda, eta enpresa hauen “gardentasun eta eraginkortasunarekin” ulertezina da nola egon litekeen horrenbesteko azpideklarazio gai honetan gure lurraldean.

Gaitz muskulueskeletikoen kasuan, gonbidatutako enpresa pribatuek kargen eskuzko manipulazioa gutxiagotzeko egindako inbertsioen eta baliabide mekanikoen berri eman ziguten. Sorbalda zaintzeko, langileoi ematen zieten soinetaren azalpena eman ziguten era berean.

Bertaratutako sentsazioa ondorengoa izan zen: jardunaldia formakuntza edo esperientzien elkar-truke saioa baino, enpresek lan prebentzio arloan egindakoaren publizitaterako esparrua baino ez zela izan, propaganda hutsa. Jardunaldiak gonbidatutako enpresek diruz ordaindutakoaren itxura zeukan.

Beste behin ere esan beharrean gaude benetan guztiz beharrezkoa dena langileon osasuna bermatzen dituzten politiken garapena dela, beste guztia publizitate engainagarria baino ez baita.

5.- CEOE-RI PREBENTZIOA ZAILA IRUDITZEN ZAIO.

CEOEK (CONFEBASK ere kide dela ahaztu barik) uztailaren azken egunetan izandako prebentzioaren inguruko jardunaldi batean lan arriskuen prebentzio sistema oso burokratizaturik dagoela eta horren aurrean arduratuta dagoela adierazi zuen. Beraz, patronal espainolak gai honetan “horrenbeste protokolo eta paper egiteak” enpresen lehiakortasuna murrizten duela pentsatzen du.

Arlo honetako legedia oso zaila dela betetzen eta enpresei zeregin larregi eskatzen diotela plazaratzen du patronalak.

Badirudi ahaztu egin dutela Prebentziorako Legea ez dela berria, 1995.urtekoa baita. Hala ere, oraindik gaur egun enpresa askotan ez dira lege honetako irizpide oinarritzkoenak ere betetzen, hots, arrisku orokorren ebaluaketa ere ez. Oraindik ere langile askok euren lanpostuetako arriskuak ez dituzte ezagutzen, ez dute osasunaren zaintzarik, ezta babes ekipamendurik edo lan tresna egokirik.

Krisiaren aitzakiaz baliatuz eta azken erreforma eta murrizketei esker, urteetan zehar lortu nahi izan dituzten helburu asko badituzte dagoeneko: lanorduen igoera, malgutasun gehiago, soldaten jeitsiera... Oraingoan prebentzio legedi errazago bat nahi dute, malguagoa, euren interesei ondo egokitzen dena, hitz gutzitan esanda: lan gutxi eta inbertsio gutxiago eskatzen duen legedia nahi dute. Eta guzti hau, jakina, “prebentzioak enpresetan lehentasuna du” lelopean esaten dute.

Jardunaldian parte hartu zuen Lan Zuzenbideko katedradun batek, langileek prebentzio araurik bat betetzen ez duten bakoitzean legediak langilea bera zigortu beharko lukeela azpimarratu zuen eta ez enpresa, gaur egiten den edota egin beharko litzatekeen moduan. Denok dakigu honezkero enpresetan zigor araudi bat dagoela horrelakoetarako eta baita ere enpresa oso gutxi jasotzen dutela zigorra lan osasunarekin erlazionaturiko gai batengatik.

Prebentzio arloan gauza larregi egin behar direlako kezkatzen dira eta buruhaustea suposatzen die. Bien bitartean langileriak osasuna eta bizitza galtzen du enpresek ez dutelako denborarik ez gogorik prebentziora inbertitzeko.

6. LAN ISTRIPU MORTALEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, URTARRILLA - IRAILA 2013

HEH	LAN ISTRIPU MORTALAK
BIZKAIA	11
GIPUZKOA	8
ARABA	4
NAVARRA	4
TOTAL	27

*Datuak Irailaren 27arte